

“Errausketak osasunean dituen ondorioak epe luzera ikusten dira”

San Jose eta Suberbiola medikuak errausketak osasunean sortu ditzakeen kalteetaz mintzo ziren

Errauskailuak osasunean duen eraginari buruz hitz egin zen asteazkenean Manuel Lekuona Kultur etxeko hitzaldi aretoan.

Errausketaren aurkako plattformen koordinakundeak antolatutako hitzaldi honetan, Julia San Jose eta Iñigo Suberbiola medikuak izan ziren errauskailuak sortzen dituen osasun arazoak azaltzen. “Gaur egun gai honi buruz ez da asko hitz egiten eta gai garrantzitsua da,” azaldu zuten medikuek.

Herrialde desberdinetan egin diren azterketen emaitzak eskaini zituzten. Hauetan, errauskailuak sortzen dituen toxinak eta furanoak epe luze- ra minbizia sortu dezaketela azaldu zuten, eta baita giltzurrunetan eta gazteen hazkuntza eragina izan ere bai.

Gainera, errauskailuetako iragazkiek emisio horietan dauden mikropartikulak harapatzen ez dituztela azaldu zuten eta horiek, azterketen arabera, bihotzeko arazoekin zer ikusia dutela.

Tabakoa adibide

Iñigo Suberbiola herritarrak tabakoaren kasuarekin pareka-

tu zuen. Izan ere, 1950. hamarkadan hasi ziren tabakoak osasunean zuen eragina aztertzen.

Suberbiolak eskainitako datuen arabera, 1964ean ondorioztatua zegoen, erretzailen %50ak minbizia izateko arriskua zuela. “Gaur oraindik, azterketak egin behar direla diote batzuk, baina argi dago tabakoak minbizia sortzen duela. Errauskailuarekin berdin gertatzen ari da,” aipatu zuen.

Medikuen manifestua

Txingudiko eremuan errauskailua eraiki nahi zutenean, duela 7 bat urte, Gipuzkoako 400 mediku eta erizainek errausketaren aurka idatzi zuten manifestua ere erakutsi zuten hitzaldian. “Honekin errauskailuaren proiektua bertan behera geratuko zela uste genuen, baina ez zen horrela izan,” azaldu zuten.

Jendearekin solasean

San Jose eta Suberbiola medikuen azalpenen ostean, solasaldia egon zen aretoan.

Honetan, errauskailuak dituen emisioen zati bat bakarrik neurtzen dela aipatu zen, “ezagutzen ez ditugun elemen-



Lasarte-Oriako eta inguruko herritar taldea bildu zen asteazkenean hitzaldia entzun eta gaiari buruzko solasaldia egiteko.

tuak ere badaude emisio horietan eta horiek ere toxikoak dira.”

Bestalde, Zubietako errauskailuan jarri nahi duten teknologiaz ere mintzo ziren. Frantziako teknologia erabiliko dute eta “lurralde hori da errauskailu gehien dituen. Horregatik, bertan azterketa gehien egin dira eta emisio toxiko altuenetakoak ere haietan neurtu dira,” azaldu zuten.

Honela, errauskailuen emisio toxikoen mailak eta haien neurketak ere izan ziren min-

tzagai, baita errauskailuetan erretzen diren materialak ere.

Beste bi hitzaldi

Asteazkeneko hitzaldia, *Errausketarik ez* izenpean antolatutako jardunaldien lehenengoa da, beste biak Donostian eta Erreterian egingo dira.

Donostiako Koldo Mitxelena Kultur Etxean, azaroaren 24an, arratsaldeko 19:30ean Jesus Perez Gomez *Hondakinak nola gutxitu?* galderari erantzuten saiatuko da bere mintzaldian. Bigarren saio

honetako hizlaria *Instituto Sindical de Trabajo, Ambiente y Salud* elkarteak kidea da eta hiri hondakinei buruzko hainbat azterketa egin ditu.

Jardunaldiak abenduaren 2an emango zaie amaiera hondakinak biltzeko dauden sistemei buruzko hitzaldiarekin, Erreteriko Xepelarr aretoan arratsaldeko 19:30etik aurrera. Ricardo Ortega San Marko Mankomunitateko lehendakari ohiak eta Mikel Izaguirre Urnietako alkateak hitz egingo dute gaiari buruz. •



Ttakun saria jasoko duela eta, pozik eta harro da Agus Mujika, *Takolo* /4-5

KIROLA /6

Dominak lortu dituzte LOKEko judoka gazteek Amurrioko eta Eibarko txapelketetan



Mendebaldeko Saharak bizi duen egoera larria eta elkartasunaren garrantzia /8



Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN KARRETEEN errebelatua EZKONTZETAKO erreportajeak ESTUDIOKO erreportajeak makina DIGITALAK 30X90 neurrirainoko ANPLIAZIO DIGITALAK GEURE MARKOAK JARTZEN DITUGU

Gabonetarako, opari aproposa daukagu edonorentzat!



2011			
GEN	OTASARBERRE	MARTIRABAZO	
1	1	1	1
2	2	2	2
3	3	3	3
4	4	4	4
5	5	5	5
6	6	6	6
7	7	7	7
8	8	8	8
9	9	9	9
10	10	10	10
11	11	11	11
12	12	12	12
13	13	13	13
14	14	14	14
15	15	15	15
16	16	16	16
17	17	17	17
18	18	18	18
19	19	19	19
20	20	20	20
21	21	21	21
22	22	22	22
23	23	23	23
24	24	24	24
25	25	25	25
26	26	26	26
27	27	27	27
28	28	28	28
29	29	29	29
30	30	30	30
31	31	31	31
32	32	32	32
33	33	33	33
34	34	34	34
35	35	35	35
36	36	36	36
37	37	37	37
38	38	38	38
39	39	39	39
40	40	40	40
41	41	41	41
42	42	42	42
43	43	43	43
44	44	44	44
45	45	45	45
46	46	46	46
47	47	47	47
48	48	48	48
49	49	49	49
50	50	50	50
51	51	51	51
52	52	52	52
53	53	53	53
54	54	54	54
55	55	55	55
56	56	56	56
57	57	57	57
58	58	58	58
59	59	59	59
60	60	60	60
61	61	61	61
62	62	62	62
63	63	63	63
64	64	64	64
65	65	65	65
66	66	66	66
67	67	67	67
68	68	68	68
69	69	69	69
70	70	70	70
71	71	71	71
72	72	72	72
73	73	73	73
74	74	74	74
75	75	75	75
76	76	76	76
77	77	77	77
78	78	78	78
79	79	79	79
80	80	80	80
81	81	81	81
82	82	82	82
83	83	83	83
84	84	84	84
85	85	85	85
86	86	86	86
87	87	87	87
88	88	88	88
89	89	89	89
90	90	90	90
91	91	91	91
92	92	92	92
93	93	93	93
94	94	94	94
95	95	95	95
96	96	96	96
97	97	97	97
98	98	98	98
99	99	99	99
100	100	100	100

Neure kabuz



Nor izango da hurrengo alkatea?

Somatzten da alkatetzarako hauteskundeak laster izango direla, alderdi politikoak euren motorrak berotzen hasi baitira. Adibidez, Lasarte-Oriako alkateak duela aste batzuk idatzi zigan herritarro gutun bat. Gutunaren goiko aldean alkatearen alderdi politikoaren irudia zegoen. Beherago Lasarte-Oriako armarría. Arraroa. Bi orrialde **GAZTELANIA HUTSEAN**, alkatearen sinadurarekin amaituz. Zer esan? No comment. Bai ... Negargarria. Duela egun gutxi ere, alderdi sozialistak, berriro ere (ia) gaztelania hutsean Lasarte-Orian egiten ari diren "berriak" bidali zizkigun herritarro. Euskeraz? ¿Para qué?

2011ko maiatzean dira udaletxerako hauteskundeak eta behingoz hainbat urtetan alkatea izandakoa ez da hautagai izango. Apirilerako, aste batzuk lehenago, oh ... Udaletxe berria eta Okendoko ingurunea bukatuta izango omen da, epeak aurreratuz.

Aldiz, krisia gogor jotzen ari zaigula eta, urte askotako zerbitzu bat, haurren jangela adibidez, arazo ekonomikoak direla eta, badirudi ez duela bere gain hartuko udaletxeak hurrengo urtetik aurrera (dirudienez, Eusko Jaurlaritzak).

Andre Joakinako Haur Eskola eta Atsotak Zahar Etxea ere, badirudi, hortxe-hortxe dabilela. Garai latzak darabilzugu. Hurrengo urteko hauteskundeak erabakiorrak izango dira.

Beno, besterik ez ... Ah, bai!!! Nor izango da hurrengo alkatea orduan?

Iñaki Erauskin

Zorion-agurrak



Idolia

Zorionak Txipiroia! Jalguneko lagunen partetik ondo pasa masapasa!



Leire

Zorionak Leire, etxeko printzesari. Irati, amaxo eta aita xoren partetik.



Gorka

Zorionak mister! Afa-riaren data noizko? Parranda zure kontu egiteko prest gaude ta!



Irune

Zorionak printzesa! Zazpi muxu handi gurasoen eta Ander-en partetik.



Aimar

Zorionak eta lau muxu handi etxeko partetik.



Aier

Zorionak zure urtebetetzean, zorionak, ta urte askotarako... 4 muxu erraldoi! Gurasoak.



Zapa

Norbaitek zer bait hain duenean, errealitate bihurtzea erraza da, zorionak! Marian eta Bakar.



Saioa

Zorionak printzesa eta hiru muxu handi Johana, gurasoak eta familiaren partetik.



Ane

Zorionak eta 21 muxu handi familiaren partetik.



Mikel

Zorionak maitia. 8 musu haundi familiaren partetik. Oso ondo pasa!



Joseba

Zorionak guapo! Zenbaki borobila ondo-ondo ospatu!



Alai

Zorionak guraso eta aiton-amonan partetik. Txokolatezko bi muxu!



Manu, Julen eta Ventu

Zorionak hirukote! Hamaika muxu familiaren partetik!

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Etxea errenta eman nahi da Lasarte-Orian, 80 metro karratu ditu eta eguzkitsua da. Harremanetarako tel.: 628 904 130.

• Urbarten garaje plaza bat alokatzen dut. Handia, kotxe familiarra edo furgonetarako aproposa. Harremanetarako: 943 376 115.

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trastelekuarekin. Dena berrituta eta amueblatuta. 3 balkoi eta oso eguzkitsua. Igogailua ere badu. 246.500 euro. Tf: 686 969 112

Salerosketak

• Fronteniseko 2 raketa berriak saltzen ditut 15 eurotan biak. 647254082 Jose Manuel

Lan-eskaintzak

• Emakume euskalduna behar dugu adineko pertsona bat zain-

tzeko, astean zehar arratsalde batean eta larunbata eta igande gauetarako. Harremanetarako tel.: 610 953 258, Pili; 13:00etatik 15:00ak bitartean deitu.

Lan-eskariak

• Azterketak datozelako erreformatzuko klaseak ematen ditugu. Talde txikietan edo partikularrak, euskaraz edo erderaz. LH eta DBH-n dauden ikasleentzako!! Kale Nagusian . 667 972471 (Jon) ; 670219022 (Lorena)

• Orduka umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko emakumea eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 676 188 411.

• Umeak eta jende nagusia zaintzeko pertsona bata eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 635 217 362.

• Jende nagusia zaintzeko pertsona bat eskaintzen da. Interna edo orduka lan egiteko prest. Harremanetarako telefono zenbakia, 697 946 546.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 19

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Larunbata, 20

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Igandea, 21

Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Astelehena, 22

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteartea, 23

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Asteazkena, 24

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Osteguna, 25

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Jaiotzak

- Ioritz Astiazaran Gutierrez, azaroaren 12an
- Cristobal Martin Ruiz, azaroaren 11n.
- Meira Echeverria Florido, azaroaren 6an.

Heriotzak

- Maria Murguiondo Lasa, azaroaren 12an 90 urte zituela.
- Paulino Olasagastil Zubeldia, azaroaren 10ean 77 urte zituela.
- Miren Plaza Arrizabalaga, azaroaren 10ean 89 urte zituela.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikulu eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Einstein zientzialariak kultur etxera hurbiltzen diren haurren galderak erantzungo ditu modu dibertigarrian. Arg. Ados Teatroa

Zientzialari handia ezagutzen

■ *Einstein* antzerki-lana dakar Ados Teatro taldeak bihar, 18:00etan, kultur etxera ■ Haurrentzako ikuzkizuna da

Einstein, bere lanagatik, bere bizi-jarreragatik baita bere itxuragatik ere, gizon jakintsuaren paradigma da: onbera, despistatua, atsegina eta abegitsua...

Einsteinek azti batek bezala jokatu zuen eta bere teoriak eragin zuzena dute guztiok, adin guztietako umeok, naturaren aurrean etengabe egiten ditugun galderetan.

Einstein, beraz, pertsonaia liluragarria suertatzen da guztiontzat, baita umeentzat ere.

Gauzak honela, Ados teatroak Manuel Lekuona kultur etxean, bihar, 18:00etan eskainiko duen *Einstein* ikus-kizunak egungo 6 eta 12 urte

arteko haur eta gaztetxoak eta zientzialari berezi hau elkar hurbiltzea du helburu nagusi.

Galderak erantzunez

Modu jostagarri batez, haurren jakin-mina sustatu eta haien lilurapena eta barrea eragin nahi du antzezlan berezi honek.

Horretarako, antzerki lan honetan haurrak Einstein zientzialaritik gertu egongo dira eta bere laborategian egingo dituen esperimentuak ikusteko aukera izango dute.

Esperimentu horiek haurren galdera bihurri eta zoragarriei erantzuna izango dira, hala nola, zerk eusten die eguzki eta planetei espazio-

an? Zer dago zeruaz haratako? Inoiz okertzen al zara?

Zientzia dibertigarria

Einstein kontu serioei buruzko ikus-kizun dibertigarria da.

Izan ere, Ados teatroak jakin-mina jolas eta norberaren bizipenaren bidez, zientzia ulergaitzaren estereotipoa baztertu eta zientzia dibertigarriaren irudia bultzatu nahi du.

Beraz, zientzialari handia den Einstein ezagutu, honi galderak egin nahi eta esperimentu liluragarriak ikusi nahi dituen haur edo gaztetxoak, bihar dute aukera kultur etxeko aretoan. Sarrerak 3,15 euro balio du.

ATERPEA

Irabazi sariak kupoi en kanpaina berrian

Aterpeak, Lasarte-Oriako Merkataritza eta zerbitzu elkarteak, "Urratu eta Irabazi" kupoi en kanpaina berria jarri du martxan azaroan zehar.

Kanpaina honetan, Aterpeako dendetan erosketak eginez gero, sari zuzenak lortu daitezke.

Aterpea dendetan erosketak egiterakoan kupoiak banatuko dituzte. Kupoi hauek "Urratu eta Irabazi" motatakoak dira eta antolatzaileek jakin arazi digutenez, sari zuzenak lortzeko aukera izango da, zozketarik gabekoak.

Kanpaina berri hau martxan da dagoeneko eta azaroaren 30era arte egongo da. •



KEXAK

Irakokizunak egin Udalarri

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko irakokizun orrialdea duela gogora arazten da.

Orrialdea Udaleko harreraren dago eskuragarri, baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere.

Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo irakokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea. •

UDALA

Obrak eta Hirigintza saila Ganbo kalean

Udalak gogora arazten du, Obrak eta Hirigintza sailaren bulegoak Ganbo Kaleko 1. zenbakian dagoen Udal Euskaltegi zaharrean tokialdatu direla, behin-behinean, harik eta "Udaletxea eraberritzeko eta handitzeko" obrak amaitzen diren arte. •



Udal Musika Eskolako ikasle eta irakasleak kalejira egingo dute astelehenean.

Emakumeak garaile Arrieskalleta Elkarteko Mus txapelketan

Arrieskalleta elkarteak bigarren Mus Txapelketa antolatzen duen, pasa den larunbatean, azaroaren 13an. Iaz hamar bikote animatu baziren ere, aurten hamasei bikote hartu zuten parte lehian.

Finalera Kike eta Txutxik osatzen zuten bikotea Arantxa eta Axunen aurka aritu ziren eta emakumeek eraman zuten txapela. Hirugarren postua Josi eta Ana bikoteak eskuratu zuten Loiarde eta Rekondo, iazko irabazleak, garaitu ostean.

Giro ederrean jokatu zuten txapelketa eta gainera parte hartu zuten bikote guztiak eraman zuten oparitzak etxera. •



Arantxak eta Axunek elkarteko zuzendaritzako kideen eskutik jaso zituzten sariak.

Kontzertu eta kalejira Santa Zeziliaren omenez

Astelehenean, azaroaren 22an, Santa Zezilia musikariaren zaindariaren eguna da eta gure herrian hainbat ekintza burutuko dira datozen egunetan.

Batetik, Alboka abesbatzak igandean Arantzazuko Amaren elizako 12:30etako meza girotuko du. Ostean, herriko kaleetatik barrena ibiliko da hainbat doinu eskainiaz eta ospakizunak amaitzeko, abesbatzako kide eta bazkideek bazkaria egingo dute Goiegi jatetxean.

Musika eskola

Astelehenean, bertan, berriz,

Lasarte-Oriako Udal Musika eskolako ikasle eta irakasleek kalejira egingo dute

Arratsaldeko 18:30ean Manuel Lekuona Kultur Etxetik hasi eta herriko kaleak girotuko dituzte hainbat musika tresnen doinuekin, hala nola, txistuak, trikitixak, panderoak, bonbo eta txindak, flautak, biolinak, tronpetak, edo gitarrak.

Eskolako zuzendaritzatik azaldu digutenez, euria edo eguraldi txarra egingo balu, ekitaldia kultur etxeko areto nagusian egingo da ordu berean, 18:30ean hasita. •

Agus Mujika, *Takolo* Irakasle-dinamizatzaile...

“Takolo Lasarte-Oriarako sortu zen, baina Euskal Herri osorako balio zuen”

Ttakun Saria emanaz, euskararen alde egindako lan zabala eskertuko dio herriko elkarteak



Agustín Mujika Zaldivian bizi da egun, bertan moztorro denda handi bat dauka eta Segurako Euskal Grotze Barneategian lan egiten du. Takolorengandik urrundu da, baina barruko harra baretze ko tarteka "bailatzokeriak" egiten jarraitzen du.

Trakun saria dela

*Ttakun saria dela
eta, oso pozik eta
harro sentitzen
naiz.*

irratia^m, Olentzeroren eguna,
kanpaldiak, Santa Ageda,...
Gela bakoitzeko ia 30 umea-

tik gehienez 2 edo 3 euskaldun
genituen, hots, guztien %5a
zen euskalduna. Irakasleen
arteak, 30etik 6. Baina hala
ere, euskararen aldeko gupila
martxan jami zen.

Gerora Euskal Eskola Publiko baten beharra sentitu nuen. Zergatik ez? Oztopo guztien gainetik gure herrirako nahi genuen eskola eraikitzea zen gure ilusioa. Agian anbizio handiegia genuen.

Hasieran zenbait errezelo
edo zalanta baldin baziren
ere. Zumaburu Sasqueta. Oztar-

ran, Landaberri eta Garaiko-
txea elkarrekin lanean hasi-
ginen, irakasleen arteko harre-
manak gero eta hobeak ziren,
eta denborarekin konturatu-
gara une hauek klabeak izan

Denbora gutxitan nola
aldatu dira gauzak. Lastima
euskaldundu gabe geratu ziren
ikasle haiek. Gaur egun ia 40
urte dituzte, eta gurasoak dira.

Batzuetan, Lasarten ikusi eta oraindik "maixu" deitzen ditate. Batzuk euskara ikasi dute, eta kristoren poza sentitzen dute. Oroitzapen oso onak ditut.

50 urte bete du urtean Agustín Mujika, eta bizitza bizi-izita izan duela ezin da ukatu. Urtea borrobitzeko Txikuan Sarria jasasotako hurrungo larunbatean, hilaren 27an, Euzkaleren 50. urteko kulturaren alde egindako lana eskertzeko ematen duen Euzkaleren 50. urteko Kulturaren Aldeko Urteko Txikuan sarria elkarlertze eta urtean Agustín Mujika Txakur-lori ematea erabaki du. Euskaldun berritza gaur-egokileak ikasle eta irakasle izan zen, gero, irakasle kuntza hasi zen lanaren Garaiakoa eta euskararen irakasle kuntza eraginarko izateko hainbat ekimen sortu izan, esaterako, Satorra irratia, haurrentzat egonaldiak edota Euzkaren Maratona.

Ion ALTUNA
nien ezer ulertzen. Amorrua

erora horren ezagunak
16 urterekin hasi nintzen
ematen zidan.

egin ziren Takolo eta konpainia Olenzero-
ren etorria prestatzeko
zituzten Lasarte-Oren
emeraldila Eskutaren i Mara-
toian egin zuten, azken finean
"herrikoiztazi zuten proiektu,
azkenekoa Eskutik Herra
osorako balio izan zuen" kon-
tatu digu Agustín Muñizak.

**Zergatik uste duzu eman zai-
zula Itakun Saria?**

Ez dakit, ez nago ziur. Agian garai batean nahiko "saltsiora" izan nintzelako edota afarian xanpaina ordaintzeko. Berdin zait, motibo batengatik edo besteagatik oso pozik eta harno sentitzen nala.

Nola ikusten duzu Ttaku?

Euskara elkartea oso indartsu
 ikusten dut: bazkide oso iza-
 zale aparte, herrian eta hermit-
 kanpo lan egiteko plangintza
 zabaldu den erakundea da.
 Tiakun, gaur egun, euskara-

jende askoren inplazazioari
esker antolatutako sare eragin-
korra da. Hori dela eta, euskal-
gintzan proiektu kultural
handia duen elkarteak da.

Gazte hasi zinen euskara ikas-
ten edo berreskuratzen, ezta?
Eta gero ikastolara pasa zinen,
Pablo Garaiakoebean hasita,...
Soldaduskako "oporren" ond-
o

nintzeanean, eta garai haietan, 1964ean, eskola publikoan ez zizuten eskura irakasten. Euskaraz hitz egiten zuten etxe barruan erabiltzen zuten irakastekako irakasleak, eta garai horietan, daberri ikastolan egin niten, eta gero Pabon Garai koetxea ikastetxean euskarazko irakaste hazi nintzen. A erudien (astean 5 orduz) eta 5 orduz gela baitoizten, 5

zen. Curre gurascok (Aieten eta Elantxoben jaiotakoak) zerbat bazakiten, baina belaualdi horretako gehienek bezala nahiko galduta zeukaten. Aitak baratzta zeukan

Zubietan, eta baserriarrek in-
topatzen ginenean, bera nola-
bait defentitzen zen baina
nirekin hasten zirenean, erabak-
lotsatu sentitzen nintzen. Ez
sumatu genuen.

A person in a costume, including a black and white hat and a black jacket, is playing a black and white accordion. The background is a colorful, stylized illustration of a landscape with green hills, orange trees, and a small orange creature.

Amezketan izan beharrean
Bizkaiko Euban (Zornotza
ondoren, Gaztelu, Alkiza eta
Segurako barnekoen iraketa-
ondoren) izan beharko luke¹⁸

Gehtigu pentstaru gabe,
eskolelako eskematik alde
eggin nahian edo, berehala jarri
nintzen martxan, 1986an.

Eta herrian ere beste hainbat gauza antolatzen zenituzten

ez al zen Euskara Taldeak ingurua euskaratu bultzazeko... Orona

Leku berri bat
betikoztat

**Azaroaren 20an
arratsaldeko 20:00etan
INAUGURATZEN DUGU!**

agustia 31
943 573885

Kiroletako agenda

■ FUTBOLA ■

Larunbata 20

10:00etan, Ostadar - Añorga (Emakumezkoen KDT F-II) Michelineen.

11:30etan, Ostadar - Añorga (Kadeteen Ohorezko Maila) Michelineen.

13:00etan, Ostadar - Pasajes (Partehartze infantila) Michelineen.

15:30etan, Ostadar - Amara Berri (Emakumezkoen Liga) Michelineen.

17:15etan, Ostadar - Hernani (I. Erregionala) Michelineen.

09:00etan, Oiartzun - Ostadar (Infantilen Ohorezko Maila) Karla Lekuona, Oiartzunen.

11:00etan, Idiazabal - Ostadar (I. Kadetea) Arizkorreta, Idiazabalen.

11:00etan, Real Union - Ostadar (Infantil Txikiak kopa) GAL, Irunen.

15:30etan, Euskalduna - Ostadar (I. Jubenila) Ubitarte, Andoainen.

17:30etan, Oiartzun - Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila) Karla Lekuona, Oiartzunen.

Igandea 21

10:00etan, Euskalduna - Ostadar (Alebinak) Zubieta, Donostian.

12:00etan, Dunboa - Ostadar (Erregional Gorenak) GAL, Irunen.

16:00etan, Andoingo Ontzerri - Texas Lasartearra (I. Erregionala) Ubitarte, Andoainen.

■ ARETO-FUTBOLA ■

Ostirala 19

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol guneko kantzian

20:30etan, ISU Leioak - Ayete

Larunbata 20

17:30etan, Aldatz H.K. - Lakunza Garraioak (Nazional B maila) Kiroldagian.

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol guneko kantzian

09:15etan, Semblante Andaluz - Ainhoa

10:15etan, Naiban - Epel

11:15etan, Obelix - Izarra

12:15etan, Viña del Mar - Buenetxea

13:15etan, Ilargi - Izkiña

15:00etan, Illun - Indaux

16:00etan, IOB H.K. - Lekuona Mena

16:30etan, Gamon Carpinteria M.A.S. - ISU Leioak (Gipuzkoako Liga, I. maila) Donibaneko Kiroldagian.

Igandea 21

HERRIKO TXAPELKETA

Kirol guneko kantzian

10:00etan, Oria kris. - Kalaberri Z

11:00etan, Morrison's - Katakras

■ PILOTA ■

Ostirala 19

18:00etan, Goierri - Intza

(Eskuz binaka I. Kadetea)

Urretxun

Larunbata 20

16:15etan, Intza - Oiarpe I

(Eskuz binaka II. Kadetea) Michelineen.

16:15etan, Intza - Legazpia I

(Eskuz binaka III. Seniorra)

Michelineen.

16:15etan, Intza - Aurrera Saiaz I

(Eskuz binaka I. Seniorra) Michelineen.

■ SASKIBALOIA ■

Larunbata 20

9:30etan, Eskola kiroleko Saskibaloi topaketa dute LH4. mailako benjaminak, Kiroldagian.

10:45etan, Eskola kiroleko Saskibaloi topaketa dute LH3. mailako benjaminak, Kiroldagian.

■ ATLETISMOA ■

Larunbata 20

10:30etan, Landaberri eta gaztetxoek Pistako Eskolarteko txapelketako jardunaldia dute. Anoetako belodromoan, Donostian.

■ JUDO ■

Larunbata 20

10:00etan, LOKEko judoka infantil eta alebinek Durangoko hiria nazioarteko II. txapelketan parte hartuko dute, Landako kiroldagia, Durangon.

16:00etan, LOKEko judoka jubentilek Miereseko txapelketan parte hartuko dute, Ofon kiroldagia, Mieres, Asturiasen.

■ ERRUGBIA ■

Igandea 21

10:00etan, Beltzak-Ostadar Jalai Errugbi eskolako alebinek kontzentrazioa dute Zarautzen.

10:00etan, Beltzak-Ostadar Jalai Errugbi eskolako infantilek kontzentrazioa dute Bera-Bera Aiete, Donostian.



LOKEko gaztetxoek domina eta trofeoak eskuratu zituzten Amurrión .Arg.: Gorka Aristegi

Dominak lortu dituzte LOKEko judokek Amurrión eta Eibarren

■ Borrokaldi “onak” egin zituzten herritarrek Gorka Aristegi entrenatzaileak adierazi duenez ■ Oscar Garrido infantilak, lau borrokatik lau irabazi eta urrezko domina ekarri zuen

LOKEko judokek larunbatean bi lehiaketa izan zituzten Amurrión eta Eibarren eta bietan emaitza onak lortzeaz gain, “judo ona” erakutsi zuten Gorka Aristegi entrenatzailearen hitzetan.

Goizean, infantilek Amurrioko Hiria txapelketan parte hartu zuten eta lau domina ekarri zituzten Lasarte-Oriara.

Oscar Garridok lau borrokatik lauak irabazi zituen eta beraz urrezko domina eskuratu zuen.

Fermin Baldak, lautik hiru borroka irabazi zituen: finalerdiak egin zuen eta ondorioz, bigarren postua lortu.

Asier Zubizarreta eta Haritz Urdangarin-ek brontzea lortu zuten bi konbate irabazi eta finalerdietan galdu ondoren.

Domina gehiago

Arratsaldean, berriaz, infantil mailako judoka hauek eta taldeko alebinek Eibarren San Andres Txapelketa izan zuten eta bertan parte hartu zuten guztiak domina eskuratu zuten.

Lan ona beraz, Gorka Aristegiren mutilak denboraldi honetakoa. Aste honetan, gainera, Durangon dute nazioarteko lehiaketa. •

Urtzi Telleriak 200 kiloko harria altxatu du lehenengo aldiz plazan

Urtzi Telleria harrijasotzaileak 200 kiloko harria altxatu zuen igandean Aldatzen jokatu zen Harri Handien Euskal Herriko Txapelketan. Txapela bere lagun Aimar Irigoienek jantzi zuen guztira 8.675 kilo eta 56 jasoaldirekin.

Irigoien txapeldunak, Urtzi Telleriak baino 7.025 kilo gehiago altxatu zituen, eta 45 jasoaldi gehiago egin, bien arteko aldea handia izan zen, baina Urtzi Telleriak badu pozik egoteko arrazoirik.

Lehenengo aldiz parte hartu du Harri Handien txapelketan eta argi utzi du harrijasotzaile ausarta dela. 80 kilo baino gutxiago pisatu zuen igandean eta besteak

beste 200 kiloko harria altxatu zuen, bere pisuaren bikoitza eta beste 40 kilokoa.

Hain juxtu Urtzi eta bere aita dira Harri Handien Txapelketan atera diren 80 kilo inguruko harrijasotzaile bakarrak. Beste guztiak, beti, 100 kilotik gorako mutikoteak izan dira. Luis Mari Telleria duela 12 urte atera zen, 1998an. Telleriatarrez gain ehun kilotik azpiko beste inor ez da ausartu Harri Handien Txapelketan.

Urtzi Telleriak lan txukuna egin zuen igandean. 200 kilokoarekin zuen erronka nagusia, lehenengo aldiz heltzen baitzion plazan eta bere helburua lortu zuen. Lehenengo ahaleginean 200 kiloko koa-

droa altxatu zuen eta bigarrena ahalegin ustela izan zen, bularretik bota egin behar izan zuen eta.

Gero, 175 kiloko zilindroari 3 jasoaldi eman zizkion, 150 kiloko kuboak bi aldiz altxatu zuen eta 125 kiloko bola beste 5 aldiz. Guztira beraz, 11 jasoaldi egin zituen eta 1.650 kilo altxatu zituen.

Esan bezala Aimar Irigoienek eraman zuen txapela, bigarrena Joseba Ostolaza izan zen eta hirugarrena Unai Lertxundi.

Azaroaren 28an Joxe Mari Mendizabal aizkolaritari Aduan egingo zaion omenaldian berriro 200 kiloko harria altxatzen saiatuko da Urtzi Telleria. •

Kiroletako oharrak

Beltzak-Ostadar Jalai Errugbi eskola

Beltzak-Ostadar Jalai Errugbi eskolako arduradunek jakin arazten dute, benjaminen entrenamendu normala dutela igandean, azaroaren 21an, 9:00etatik aurrera.

Ostadar K.F.-ren loteria

Ostadar Kirol Fundazioak Gabonetako Loteriako txartelak ditu salgai, 68226 zenbakia. Interesa duenak kirol elkarteko egoitzara hurbiltzea besterik ez du, Geltoki kaleko 25. zenbakira.

Egunero

Erakusketa

METAMORFOSIAZ, Jasone Irigoien margo erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

Ostirala, 19

Kontzertua

ORIA HIRUKOTEAREN emanaldia Danok Kidek antolatzen duen VI. Topaketa Musikalen barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.



Larunbata, 20

Antzerkia

EINSTEIN haurrentzako antzerkia Ados antzerki taldearen eskutik. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ.

Igandea, 21

Zinea

COMO PERROS Y GATOS haurrentzako filma. Sarrera 3,15 euro. Kulturetxean, 17:00etan.

GAZTELANIAZ.



Verdini taldearen Dantzaria naiz emanaldia gaur kulturetxean

DANTZARIA NAIZ emanaldia eskainiko du Verdini taldeak Lasarte-Oria Dantzan ekimenaren barruan. Verdini taldean 5 urte darama Nerea Astarbe herritarrek dantzan eta taldeak sortutako hiru lanetan hartu du parte. Gaurko emanaldian ere oholatza gainean ikusiko dugu Nerea.

GAUR, OSTIRALA
KULTURETXEAN 20:00ETAN
SARRERA, 6 EURO.

Astelehena, 22

Kalejira

SANTA ZEZILIAREN EGUNA dela eta, musikarien eguna alegia, Udaleko Musika eskolak kalejira egingo du hori ospatzeko. Herriko kaleetan zehar, 18:30ean.

Asteazkena, 24

Diaporama

GARAZI, GASTEIZ ETA BARDEETARA aurreko ikasturtean eginiko irteerei buruzko diaporama eskainiko du Oinatz taldeak. Jalgi kafe-antzokian, 21:30ean, EUSKARAZ.

Osteguna, 25

Zinea

80 EGUNEAN filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean, EUSKARAZ.



Ostirala, 26

Antzerkia

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOKO antzerki taldearen antzezlan. Sarrera, 2 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Larunbata, 27

Sari banaketa

LITERATUR LEHIAKETAKO SARI BANAKETA. Manuel Lekuona kulturetxean, 12:00etan.

Jaialdia

GURE AMETSA taldearen JAIALDIA. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:30ean.



Saria

TTAKUN SARIA aurten Takolori emango zaio. Afaloste girotua izango da, bertsok, txalaparta, sorpresak... Goiegi jate-txean 20:30ean. Txartelak eskuragarri Ttakun Kultur Elkartean.

Igandea, 28

Zinea

EL PRINCIPE DE PERSIA haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

GAZTELANIAZ

Asteazkena, 1

Ipuin-kontalaria

IPUINAREN ORDUA Koruko Zurutza eskutik 6, 7 eta 8 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu egin behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira. Behin ipuina hasi eta gero, ezin da gelatik atera. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etatik aurrera, EUSKARAZ



Diaporama

GEORGIAI buruzko diaporama eskainiko dute Igor Unanuek eta Mikel Urdanpilletak. Jalgi kafe-antzokian, 21:30ean.

EUSKARAZ.

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 21:00
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181



Esazu irratiako programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diruzorroa, urrezko katea, zilazorroa, urrezko zintzilikarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, puntuzko txaketa eta erloju bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Ttakun Saria

Azaroaren 27an Goiegi jate-txean egingo den afariaren ondoren emango da Ttakun Saria. Bilkura arratseko

20:30ean izango da jate-txean bertan eta afaldu ondoren hainbat ekitaldi prestatu dituzte: txalaparta, bertsok, antzerkia... eta sorpresa ugari.

Afarira joateko txartelak eskuragarri daude Ttakunen (Geltoki kalea 4) azaroaren 24ra arte. Helduek 30 euro ordaindu behar dute txartela eta 16 urte artekoek, 17 euro.

Oztabide elkarteak loteria

Oztabide auzo-elkarteak Arranbide-Oztaraneko auzotarrekin jakin arazten die eguberrikotako loteria salgai dagoela elkarteetan. 19108 zenbakia da eta 3 eurotako (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteria partaidetzak dira hartu daitezkeenak.

Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta Coviran supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzue. Bide batez, gogorra arazi nahi dizuegu administratza gastuei aurre egiteko baliabide hau bakkirik daukala elkarteak.

Kirol abonua berritzeko

Kirolzalea baldin bazara eta herriko kiroldegiko instalazioak erabiltzeko ohitura baldin baduzu abonua berritzeko epea ireki du Lasarte-Oriako Udal Kirol zerbitzuak.

Abonu berritze epea eta abonua desberdinen, urteko edo sei hilabetekoaren berri emateko Lasarte-Oriako Kirol Udal Zerbitzuak 18 urte

beteak eta 25 urtetik behera izanik familiako abonuen barne jarraitu nahi duten bazkideei, ordainketa helbideratua duten bazkideei eta ez helbideratua dutenei gutuna bidali die etxera.

Era berean, Kirol Zerbitzuek gogoratzen dute abonua familiarraren barnean egon diren 25 urte arteko gazte baimenduak adin hori igarotzerakoan ezin direla abonua familiar horretako onuradun izan. Horren ondorioz, abonua indibiduala egin beharko dute.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Saharar herriaren egoera larria

Estatu eta Euskal Herri mailan elkartasun ekimen ugari egin dira egoera salatzeko

Aste hauetan, Mendebaldeko Saharako Gdeim Izik kanpamentuko sarraskia eta Aaiuneko gertakariak berri izan dira komunikabideetan, baita Saharar herriaren alde egin diren ekintzak ere. Saharar herriarekin lotura handia duen eta Yal-lah Gazte ekimeneko kide den Biki Pozo herritarrekin batu gara egungo egoerari buruz gehiago jakiteko.

Nerea EIZAGIRRE

Duela 35 urte, Estatu espainiarrak Sahara utzi zuen. Geroztik, herri hori banatua bizi da, batzuk errefuxiatu kanpamentuetan, besteak Marokok okupatutako lurraldean, edota erbestean beste batzuk. Auto-determinazioa erreferendumen zain daude eta egoera larrian bizi dira.

Duela aste batzuk, Aaiun ondoan Gdeim Izik kanpamentua eraiki zuten, "modu baketsuan, errebindikaziorik gabe, ez zuten Saharar ikurri-na jarri... Nazkatuak zeuden 35 urtez bizitako egoeraz eta herria berea ez dela esaten dutelako" azaldu digu Bikik.

Hango egoerari buruz galdetean, "momentu honetan badakigu, kanpamendua

desegin dutela eta 150 desagertu daudela. Izan ere, ejertzitoea sartu zenean askok basamortura ihes egin zuten. Baina ez dakigu desagertuak dauden edo desagertu arazi dituzten" aipatu digu.

Eta atxiki du, "tentsio handia dago Aaiunen, hirian bertan, etxeetan sartzen dira hauek arakatzerat. Eta jende asko gartzelaratu dute terroristak izatearen kargupean. Hango egoera geroz eta zailagoa dela badakigu. Guretzat orain Marokok egin nahi duena garbiketa etnikoa da".

Gainera, Mendebaldeko Sahararekin kontaktuan jartzeko zailtasuna azpimarratu du, "ezin dugu informaziorik jaso. Estatu mailako komunikabideek ere ez dute baimenik sartzeko. Marokok Mendebaldeko Saharako bideak itxi



Gdeim Izik kanpamentuaren irudia Marokoko ejertzitoea bertan sartu ostean.

Arg.:AP/elvigiadelmundo.blogspot.com

ditu, Aaiuneko aireportua guztiz itxia dago. Ez dute jendea sartzen uzten. Ez dute hango berririk ematerik nahi. Beraz, daukagun informazioa hemen bizi diren sahararrek hango familiakoekin hitz eginez lortutakoa da, hitz egitea lortzen baldin badute."

Hau guztiagatik, "guda aldarrikatzen badute, inork ez ditzala eskuak burura eraman. Guk ez dugu hori nahi. Nik zazpi urte daramatzat errefuxiatu kanpamentuetara bidaia-

tzen eta nire familia da. Nik ez nuke nire familiako kide edo ezagun baten hiletara joan nahi. Baina haien erabakia hori bada, guk onartu eta errespetatuko dugu" adierazi du.

Eskubideak eta ardura

Horregatik, herri honek giza eskubideen zapalketa sufritzen duela salatzen du, "ezin dira interes ekonomikoak, pertsonen gaitetik jarri. Pertsonak dira eta giza eskubideak dituzte, ez dira harriekin jokatzeko ari".

Salaketa hori egin eta Estatuari zerbait egin dezan eskatzeko hainbat ekintza burutu dira, elkarretaratzek eta manifestazioak, esaterako. Madrilen milaka pertsona bildu ziren eta horien artean, Bikirekin batera Lasarte-Orian bizi diren sahararrak.

"Izugarria izan zen. Iaz ere egon nintzen eta harrituta bueltatu nintzen, sahararren kausaren alde zegoen jendetza ikusita. Baina aurtengoa... ezin ginen ibili, jende eta erakunde pila bat zegoen. Pertsona anonimo pila, eta hunkigarria zen udan etortzen diren haurren argazkiak jendeen eskuetan ikustea eta haiek negarrez ikus-

tea. Ikaragarria zen, bi ordutan herri oso bat batu egin zen Saharar herria maite dugulako. Hori ezin da ezabatu, Estatuak eta Gobernuak ezin dute hori ezabatu" azaldu digu.

Izan ere, gatazka hau amaitzea, "ez dago gure esku. Arduradun nagusia Estatu da, duela 35 urte, honek hanka sartze handia egin zuela onartu behar du eta mugitu behar du fitxa. Ezin dugu ahaztu behar kolonia bat zela eta ez dela deskolonizatu izan" adierazi du eta "Estatuak edo Nazio Batuek Marokoko erreinuari nahi duena ezin duela egin esan behar diote" atxiki du.

Gauzak honela, "etorkizuna ez da oso argia. Aldizkariak begiratzeko badira, gaiari buruz gutxiago hitz egiten da. Eta ez dakigu hildako gehiago dagoen edo ez. Komunikabideek eta militanteek mahai gainean jarri behar dugu gaia eta ezin dugu beste aldera begiratu" aldarrikatzen du.

Horregatik, larunbatean Bilbon 12:30ean, egingo den manifestaziora joateko deia luzatzen die herritarrei, baita inguruko herri desberdinetan egingo diren ekintzetara ere. •



Herrian bizi diren sahararrak eta lasarteoriatar batzuk Madrilen egin zen manifestazioan.

Gosariak
Hamaiketakoak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Urtebetetzeak

ERREKATXO
JATETXEA

KARTA
eta
EGUNEKO MENUA



...
Oria Etorbidea Ibaiondo Poligonoa 4 • Tel.: 943 365557
Lasarte-Oria

NAGUSI BERRIAK
Ordutegi berria
Giro berria

WIFI GUNEA